

DATUAK
BABESTEKO
EUSKAL
BULEGOA



AGENCIA
VASCA DE
PROTECCIÓN
DE DATOS

2004 Oroitidazkia

www.avpd.es

Argitaraldia:	1 ^a 2005eko ekaina
Ale-kopurua:	300 ejemplares
©	Agencia Vasca de Protección de Datos
Argitaratzailea:	Agencia Vasca de Protección de Datos
Internet:	avpd.es
Inporimaketa:	Servicio de imprenta y reprografía

Aurkibidea:**Orrialdea**

1. AURKEZPENA. BIDEAN ABIATUTA.....	5
2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN JARDUERA- ESPARRUA.....	7
2.1. TESTUINGURU TEKNOLOGIKOA.....	7
2.2. GURE JARDUERA-ESPARRUA	8
3. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOARI BURUZKO AURRERAPENA.	12
3.1. MISIOA	12
3.2. IKUSPEGIA	13
3.3. BALIOAK.....	14
3.4. KUDEAKETA PLANAK ETA ADIERAZLEAK	15
4. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA.....	16
4.1. DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA	16
4.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EGITURA	18
4.2.1. Zuzendaria.....	18
4.2.2. Kontseilu Aholku-emailea	19
4.3. EGIN GABE DAGOEN ARAU GARAPENA.....	21
5. DATUAK BABESTEKO EUSKADIKO ERREGISTROA.	24
5.1. LEGEAREN 18 ARTIKULUAREN EDUKIA.....	24
5.2. LEHENDABIZIKO JARDUERAK	25
5.3. INFORMAZIOAREN ABIAPUNTUKO EGOERA. DATUAK ETA KOADROAK.	27
5.3.1. Erakunde aitortzaileak	28
5.3.2. Inskribatutako fitxategiak.....	31
5.3.3. Inskribatutako fitxategien banaketa, atalka.	34
5.3.4. Aitortutako Fitxategien segurtasun maila	37
5.4. INFORMAZIO TRUKAKETA DATUAK BABESTEKO ERREGISTRO OROKORRAREKIN.....	39
6. FITXATEGI PUBLIKOETAKO ARDURADUNEK PLANTEATUTAKO GALDEREI BURUZKO INFORMAZIOA.....	41

7.	KONTROL FUNTZIOAK: IKUSKARITZA ETA ESKUBIDEAK	
	BABESTEA.	42
8.	EKONOMIA- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA ETA GIZA	
	BALIABIDEEN KUDEAKETA.	43
8.1.	EKONOMIA- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA.....	43
8.1.1.	2004ko aurrekontua gauzatzea	43
8.1.2.	DBEBak egindako lehenengo aurrekontua (2005).....	44
8.2.	GIZA BALIABIDEAK.....	45
8.3.	EGOITZA	47
9.	BULEGOAREN WEB ORRIAREN PRESTAKETA.....	48
10.	ERAKUNDEEKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK.	50
10.1.	IRUDI KORPORATIBOAREN PLEGUA PRESTATZEA.....	50
10.2.	HITZARMENAK	51
10.3.	DATUAK BABESTEKO BULEGO IZATEKO, NAZIOARTEKO KREDITAZIOA LORTZEKO TRAMITAZIOA	51
10.4.	DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN KONTSEILU AHOLKU- EMAILEAN PARTE HARTZEA	52
10.5.	DATUAK BABESTEKO BESTE BULEGO BATZUEKIKO LANKIDETZA. ERREGISTRO TRUKAKETAKO INFORMAZIO SISTEMA (SIDIR) ABIARAZTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA.....	53
10.6.	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO KONFERENTZIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	53

ERANSKINAK.

- I. ERANSKINA. 2/2004 LEGEA, OTSAILAREN 25EKOA, DATU PERTSONALETARAKO JABETZA PUBLIKOKO FITXATEGIEI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA SORTZEARI BURUZKOA.
- II. ERANSKINA. DBEBAREN 2005EKO AURREKONTUEN PROIEKTUA.
- III. ERANSKINA. ERREGISTRO TRUKAKETAKO INFORMAZIO SISTEMA (SIDIR) ABIARAZTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA, 2004KO AZAROAREN 22KOA.

1. Aurkezpena. Bidean abiatuta.

Autonomia-kontrolako aginpideak sortzea aurreikusten du 15/1999 Lege Organikoaren 41 artikulua, izan ere, Lege horek erakunde horien, titulartasun publikoari dagokionez, lurralde-esparruko eskumenak ezartzen ditu. Estatu batean hainbat kontrol-aginpide sortzeko aukera jasotzen dute 95/46/CE Zuzentarauak bai eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideei buruzko Kartak ere. Azken hori, aldi berean, Europako Konstituzio-proiektuan dago integratuta.

Aurkezpen honen izenburu gisa "*bidean abiatuta*" esaldia jarri dugu, hain zuzen ere, lehendabiziko oroitza-txosten honen berezitasuna islatzearen, izan ere hasiera honetako helburuak izan dira, lehenengo eta behin, legeak agintzen duena betetzea, hau da, administrazio-erakunde erabat berria, eta, nolabait esatearren, bere izaera juridikoa dela-eta bitxia gure antolamenduan, eratzea; eta, aldi berean eta bigarrenik, erakunde horrek helburu duen zereginean jardutea: datuak babesteko araudia betearaztea eta kontrolatzea, eta herritarren intimitate pertsonala eta familiarra babestea, beren eskubide guztiak erabat gauza ditzaten.

Illo horretatik, kontuan hartu behar da Bulegoaren jardura hasi zela zuzendariak kargua hartu zuen unean, eta orduantxe hasi ziren Bulegoa bera eratzeke eta eskaini behar zuen zerbitzu publikoa antolatzeke lan konplexuak ere. Era berean, bidezkoa da eratze prozesu honen lehenengo fasean Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak eta datuak babesteko gainerako agentziek

eskaini diguten laguntza aparta eta adeitsua aitortzea eta erakunde horiei eskerrak ematea.

Bulegoa eratzearen, hainbat esparrutan jardun behar izan dugu, adibidez, eraketa lanetan (erakunde-eraketa eta arauen garapena), baliabideez (giza baliabideak eta materialak) hornitzeko, alderdi teknologiko eta metodologikoen esparruan eta azpiegitura lanetan ere bai. Motibatu eta gudan ilusio handia pizten duen erronka da.

Azkenik, azpimarratu behar dugu abiapuntuan badela alderdi onik, izan ere gure legearen aplikazio-esparruan integratutako administrazioek egoki betetzen dute datuak babesteko alorreko araudia. Eta hori diogu Estatu osoko titulartasun publikoko fitxategien egoerarekin alderatu ondoren. Horrek, noski, indarra ematen digu egiteko daukagun guztiari ekiteko, eskatutako alderdi formal guztiak betetzea lortzeko, administrazio publikoetan diharduten langileak prestatzeko eta sensibilizatzeko, datuak babesteko praktika egokien protokoloen aplikazioa hobetzeko, e-administrazioa gaurkotzeko eta garatzeko lanetan jarduteko, baina, batez ere, datu pertsonalei dagokienez, pertsona fisikoen oinarrizko askatasun eta eskubideak babestuko direla ziurtatzeko.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak babesteko Euskal Bulegoaren Zuzendaria

2. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerak- esparrua.

2.1. *Testuinguru teknologikoa*

Euskadik presentzia handia du Informazioaren Gizartean; batez beste, Europako Batasuneko herrialadeetako Interneteko erabiltzaile kopuru antzekoa du. "Euskadi Informazioaren gizartean" Planak, esaterako, baditu zenbait programa helburu dutena, lehentasun gisa, Euskadin "Internet kultura" garatzea, bai herritarrei eta bai enpresei begira. Hala bada, etxeko ordenagailuak erosteko jarduerak abiarazi dira, finantza-erakundeekin batera (Konekta Zaitetz, Conéctate), eta Interneten oinarritzko prestakuntza jasotzeko zentroak sortu dira udalerriz guztietan, herritarren eskura.

Euskal Administrazioek e-Administrazioa izeneko praktiken aldeko apustua egin dute, zalantzarik gabe. Euskadik badu, dagoeneko, Egiatagiri Elektronikorako Baimena (Izenpe), sinadura elektronikoen bidez herritarrekiko elkarreragin zitura eskaintzearen. Administrazioek hainbat *on line* zerbitzu eskaintzen dizkiete herritarrei, hala nola espedienteak tramitatzeko eta kontsultatzeko zerbitzua, egiatagiriak eskatzekoa, administrazio-kontratazioa, ordaintze-gunea eta abar.

Arestian adierazitako guztiak teknologia-ezarpen handiko testuinguru batean jartzen gaitu, non gero eta indar handiagoa duen herritarrekiko elkarreraginak; horrek berekin dakar datu pertsonalak jasotzen dituzten gero eta fitxategi gehiago izatea.

2.2. Gure jarduera-esparrua

Bulegoari buruzko Lege arautzailearen bigarren artikulua zehazten du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduera-esparrua. Artikulu horren arabera, Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak, lurralde historikoetako foru organoek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek eta administrazio publikoekin lotura duten era guztietako enteek (publikoak, mendekoak edo haietara loturikoak) sortu edo kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategiei aplika dakieke, betiere fitxategi horiek sortu badira zuzenbide publikoko agintea erabiltzeko.

Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren beraren lana neurtu ahal izateko, eman eta zabaldu beharrekoak dira erakunde-bilbearen inguruko datu hauek (fitxategiaren batzuk, haien titulartasunekoak izanik, 2/2004 legearen aplikazio-eremuaren barruan zein eremu horretatik at eratuko badira ere).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Eusko Jaurlaritzari, dagokionez:

- Administrazio Orokorra ez ezik, badira laurogeita bi sozietate publiko zeinetan administrazio orokorrak parte hartzen baitu, bai eta zazpi erakunde autonomiadun ere.
- Funtzionarioak eta lan-kontratupekoak barne, enplegu publikoak 59.000 langile biltzen ditu.
- Datuak babesteko Espainiako Bulegoaren Erregistroan 456 fitxategi daude jasota gaur egun.

Hiru lurralde historikoei dagokienez, hiru Foru Aldundiek:

- Hogeita hamazazpi sozietate publikotan dute parte, bost administrazio-erakunde autonomiadun dituzte, bai eta merkataritza-erakunde autonomiadun bat ere.
- Enplegu publikoaren alorrean, funtzionarioak eta lan-kontratupekoak barne, 8.779 langilek dihardute.
- Gaur egun, 234 fitxategi daude jasota Datuak babesteko Espainiako Bulegoaren Erregistroan.

Autonomia Erkidegoan diren 151 udalei dagokienez, honakoa dugu:

- 336 tokiko erakunde txiki eta administrazio-batzorde biltzen dituzte. Badira udal horiek parte hartzen duten laurogeita bederatzi sozietate publiko, eta 125 erakunde autonomiadun dituzte.
- Funtzionarioak eta lan-kontratupekoak barne, 19.328 langilek dihardute udal administrazioan.
- Gaur egun, 1.503 fitxategi daude jasota Datuak babesteko Espainiako Bulegoaren Erregistroan.

Halaber, azpimarratu behar da badirela **udal mailaz gaindiko zenbait tokiko erakunde**: sei Kuadrilla (Eskualde); hogeita hamazortzi Mankomunitate (hamabi sozietate publiko eta administrazio organo autonomiadun bat dutenak); hogei partzuergo eta Udalen Elkarte bat.

“Administrazio publikoarenak edo horiekin lotura duten zuzenbide publikoko era guztietako erakundeak” direla-eta, bada borondaterik, dirudienez, beren legeak betetzearen, Euskadiko

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduera-esparrua.

Autonomia Erkidegoko Lurralde Administrazioetako edozein pertsonak, juridiko zein publiko, sortu edo kudeatutako fitxategiak Legearen aplikazio-esparruaren barruan sartzeko. Ez da oraindik esamoldeari -Legeak ad hoc sortua- dagokion integrazioa ahalbidetzeko arau orokorrik, baina antzematen da beharrezkoa dela bere zentzuari eta irismenari buruzko aurreikuspenak jasotzea Legeak izango duen garapenean.

Beste alde batetik, legearen esparrua hedatzen da, logikoa denez, Autonomia Erkidegoaren instituzio-sare osora. Berariaz aipatzen ditu, esaterako, Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Arartekoa, Lan Harremanen Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Kooperatiben Kontseilu Nagusia, Arbitraje Batzordea eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa bera ere. Bestalde, Eusko Legebiltzarraren lege bidez sor litezkeen erakundeak ere, nortasun juridikoa eduki edo ez, aurreikusten ditu, baldin eta erakunde horiek sortzeko legearen artikuluetan aurkakoa xedatzen ez bada.

Azkenik, eta legearen xede den sektore publikoari buruzko jarduerarekin bat etorrira, zuzenbide publikoko korporazioetara, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituztenetara ere hedatzen da eskumena. Hau da, elkargo profesionalak eta ganberak hartzen ditu, konstituzio-arauei jarraiki (batez ere erlkargo profesionalen buruzko STC 76/1983 eta 89/1996, nekazaritza ganberei buruzko STC 22/1999, merkataritza ganberei buruzko STC206/2001 eta hiri jabetzaren ganberei buruzko STC 11/2002) oinarri pribatuko sektoreko korporazioak direnak, edo elkarte izaerako ente publikoak, hau da, zenbait gizarte-interesengatik legearen

borondatez sortutako gizarte-elkarteak, sarritan nortasun juridiko-publikoa dutenak.

Korporazio horiek zenbait baldintza bete behar dituzte: lehenengo eta behin, zuzenbide publikoko eskumenak eduki beharko dituzte (administrazio-jarduera bat garatzeko balioko dute); bigarrenik, eskumen horiek garatu beharko dituzte Administrazio Zuzenbidearekin bat etorruta, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioak aztertu ahal izango ditu; eta, hirugarrenik, fitxategi publikoaren arduradunak Erkidego Administrazioarekiko lotura izango du (Autonomia Estatutuan aitortutako eskumena, transferituta dagoena).

Bulegoaren eskumen-esparruari dagokion azterketarekin bukatzearren, komenigarria iruditzen zaigu azpimarratzea kontroleko beste aginpide batzuetatik zein jarduera-esparruk bereizten gaituen, egin beharreko zereginen garrantzia mugatuko dituzte-eta. Ertzaintzaren (Euskadiko Autonomia Estatutuaren 17 artikulua eta Euskadiko Poliziaren 4/1992 Legea) eta foru ogasunen (Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarria; Autonomia Estatutuaren IV. Kapituluko II. Idazpurua; Kontzertu Ekonomikoaren 12/1981 Legea; eta Lurralde Historikoen 27/1983 Legea).

Bada arestian landu dugun beste alderdi bat, bereziki nabarmendu nahi duguna, garrantzitsua baita datu pertsonalen babesaren ikuspegitik. Besteak beste osasun eta hezkuntza arloetan Autonomia Erkidegoko teknologia-aurrerapen handiaz ari gara.

3. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren planifikazio estrategikoari buruzko aurrerapena.

Behar-beharrezkoa da edozein erakunderen, erakunde publikoak barne, jardueraren oinarriari buruzko hausnarketa egitea. Hala bada, balioak funtsezkoak dira. Horregatik, ikuspegiaren eta misioaren deklarazioak berebiziko garrantzia dute programazio estrategikoaren prozesuan. Erakundearen filosofiaren deklarazio eraginkor batek etorkizunean hartu beharreko erabaki estrategikoak hartzeko erreferentzia-marko gisa balio du.

3.1. Misioa

Erakunde baten misioa erakundearen beraren isla da, izan ere kudeaketa publikoan betetzen duen funtzio orokor eta espezifikoa agertzen ditu. Ildo horretatik, misioaren aplikaziorik behinena da erabakiak hartzeko barne-gida izatea, eta proiektu eta jarduera guztiek misioarekin duten bateragarritasuna probatzeko ere bai.

Datuak babesteko Euskal Bulegoaren misioa ondokoan biltzen da:

“herritarren intimitate pertsonal eta familiarra eta haien legezko eskubideak betetzen direla gauzatzea, datuak babesteko legedia betetzen dela zainduz eta horren aplikazio kontrolatuz, bereziki datuen informazio, sarbide, zuzenketa, aurkaritza eta balio gabetze eskubideak”.

Misioaren identifikazio horrek eragiten du Legeak esleitutako funtzio batzuk, ondoren ikusiko dugunez, agindu hori betetzera zuzenduta egotea. Horrenbestez, DBEBak honako jarduera hauek izango ditu helburu:

- Pertsonen beren eskubideen berri ematea
- Datuak tratatzean publizitatea zaintzea.
- Jasotako eskaera eta erreklamazioak bideratzea.
- Tratamenduak datu pertsonalen babesaren printzipioetara egokitzea.
- Tratamendua egiten dutenei eskatzea har ditzatela beharrezko diren neurriak datuen tratamendua egokitzeko inarrian dagoen legedira.
- Informatika-aplikazioak kontrolatzea, eta hala badagokio, zigor-eskumena gauzatzea, diziplina-prozedurak abiaraztea eta dagozkion behin behineko neurriak hartzea.
- Gainerako aginpideekin lankidetzan aritzea Datuen Babeserako zereginetan, misio komun hori lortzearen.

3.2. Ikuspegia

Gure ingurune sozial eta teknikoan bete beharreko misioa aztertu ondoren, honakoa da, gure ustez, Bulegoak izan behar duen ikuspegia:

“Datuak tratatzerakoan izan behar den askatasunen babesaren eta Administrazio Publikoen aurrerapen teknologikoen arteko oreka bilatzea eta bermatzea, arlo honetan kultura berri bat ezartzen lagunduz.”.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren planifikazio estrategikoari buruzko aurrerapena.

Ikuspegi hori gauzatzearren, arreta berezia eskaini beharko diegu honako zeregin hauei:

- Jarrera erreaktiboa (ikuskaritza, zigorra) gainditzea, ikuspegi hau Administrazio Publikoetan lortzearren ekimenak bultzatuz. (Datuak babesteko legedia betetzen dela sustatzeko neurri proaktiboak).
- Euskadi Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan datuen babesia eta Work Flow integratzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea.
- Administrazio Publikoei bultzatzea Oinarrizko Eskubideak errespetatu ditzen, eta arreta berezia eskaintzea segurtasunari dagozkion datuei.

3.3. Balioak

Bulegorako zehaztutako misioa eta ikuspegia oinarritu behar dira Agentzi bera sortzen eta eratzen duten balioetan; horien artean honako hauek aipatu behar dira:

- Lidergoa: zuzendaritza eraginkor eta haztatua eta DBEDan diharduten langile guztien inplikazioa proiektuan.
- Koordinazio eraginkorra administrazio publiko guztiekin eta datuak babesteko kontrolean diharduten gainerako erakundeekin.
- Zerbitzu publikoa.
- Kalitatezko antolakuntza
- Motibatutako eta prestatutako lankideak.
- Aholkularitza egokia.
- Herritarrekiko hurbiltasuna

3.4. Kudeaketa planak eta adierazleak

Aldizkako kudeaketa planak ezartzea da Bulegoaren konpromisoa. Plana horiek betetzen ote diren jakiteko, dagozkion adierazleak aztertu beharko dira. Neurtzeko parametroak proposatzeko, gainerako aginpideek duten eskarmentua aztertuko da eta erabiliko da Datuak babesteko Euskal Bulegoaren eraketarako egindako plan estrategikoa eta funtzioak kontrolatzeko.

4. Datuak babesteko Euskal Bulegoa.

4.1. Datuak babesteko eskubidea

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek datu pertsonalak azkar, era masiboan eta modu orokorrean lortu eta erabili (manipulatzea, sailkatzea eta biltzea) ahal izatea ahalbidetzen dute. Horrek arriskua dakarkio pertsonen pribatutasunari edo informazio-autodeterminazioari. Horrela bada, datu pertsonalen kontrola eta babes lagungarri da datuen erabileraren eta esfera pribatuaren babesaren arteko zubiak ezartzeko.

Datu pertsonalak babesteko eskubidea hainbat esparrutan aitortu eta arautu da orain arte. Horiek horrela, nazioarteko eta Europako araudiari dagokionez, nahitaez aipatu behar dira honakoak: Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena, pertsonen babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren alorrean, 1981eko urtarrilaren 28koa.

- Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 95/46/CE Zuzentaraua, urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.
- Eskubide hori Europako Konstituzioa ezartzen duen Itunean bertan ere jasotzen da (I-51 eta II-68 artikulak), Oinarrizko Eskubideen Europako Kartak ezarritakoa biltzen baitu.

Estatuan, berriz, sektore jakin batzuetako (osasun arloa, finantza eta zergak, segurtasun kidegoak, estatistika, hauteskunde-gaiak erregistroak...) araudi zabal eta konplexua alde batera utzita, honakoa da oinarritzko erreferentzia:

- Espainiako 1978ko Konstituzioa. 18-4 artikulua, legez kanpoko edo ohorearen aurkako erabilera ekiditeko, pertsonen beren datu pertsonalak kontrolatzeko eskubidea aitortzen diena (artikulu horren muga zein den jakiteko, nahitaezkoa da azaroaren 30eko Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 Epaia jotzea, Espainiako Arartekoak jarritako 1463-2000 konstituzioaurkakotasuneko errekurtsoren ondoriozkoa).
- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesari buruzkoa (LOPD), 95/46/CE Zuzentarauaren ondoriozkoa, lehengo 5/1992 Lege Organikoa (LORTAD) ordezkatu zuena.

Autonomiaren esparruan, nahitaez aipatu behar dira gurea bezalako kontrol-aginpideak sortzeko bi legeak: bata, Madrileko Autonomia Erkidegoarena (uztailaren 13ko 8/2001 Legea, 13/1995 Legea baliogabetzen duena), eta Kataluniakoa (apirilaren 19ko 5/2002 Legea).

Eskubideak babesteko arautegi hau betetzen dela ahalik eta hurbilenen ziurtatu eta egiaztatu ahal izateko sortu dira, hain zuzen ere, autonomi kontrolerako agintariak, horiek zaintzeko aginduak emateko eta, hala badagokio, gerta litezkeen arau hausteak zigortzeko. Horregatik, bada, arestian aipatutako oinarritzko legeek tinko galdegiten dute (108. komenioa, 95/46/CE zuzentaria eta LOPDren 41. artikulua, besteak beste), zeregin

horiek betetzerakoan, independentzia eta objektibotasuna funtsezkoak izan behar direla

4.2. *Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura*

4.2.1. Zuzendaria

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak Bulegoa zuzentzen du eta izen bereko erakundearen ordezkaria da. Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez izendatzen dute, lau urterako.

Legeak zehazten duenez, erabateko independentziaz eta objektibotasunez betetzen ditu dagozkion funtzioak, eta ez dago inolako aginduren mende horiek betetzeko. Hala ere, zuzendariak, bere funtzioak direla-eta, Kontseilu Aholku-emaileak egiten dizkion proposamenak entzun beharko ditu.

Independentzia osatzen da, neurri handi batean, legeak ematen dizkion eskubideak eraginda, bai eta legean bertan ezarritako erregimenak eraginda ere. Bulegoaren zuzendariak karguari utziko dio dagokion epea bukatu aurretik soilik berak hala eskatu duelako edo Gobernu Kontseiluak kargutik kentzea erabakita, arrazoi hauetakoren bat dela eta: betebehar larriak bete ez dituelako, bere lana egin ezina etorri zaiolako, bateraezintasunen bat dela-eta edo dolozko delituren batengatik epaia jaso duelako. Halakoetan, espedienteak egin beharko da aurretiaz, eta Kontseilu Aholku-emaileari entzun beharko zaio, nahitaez, espediente horretan.

Betearazleak, arau emaileak eta aholku emaileak dira bere funtzioak, bai ekonomia eta aurrekontuei buruzko edukia duten arloetan, eta bai pertsonaleko gaietan ere. Horiek guztiak zehazten ditu otsailaren 25eko 2/2004 Legeak.

4.2.2. Kontseilu Aholku-emailea

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 16 artikulua aurreikusten du Bulegoaren zuzendariak Kontseilu Aholku-emailea edukitzea. Honakoa izango dira Kontseiluaren kideak:

- a) Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat, Legebiltzarrak berak izendaturik.*
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako ordezkari bat, Gobernu Kontseiluak izendaturik.*
- c) Lurralde historikoen ordezkari bat, lurralde horiek batera izendaturik.*
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko toki erakundeetako ordezkari bat, lurralde horretan erakunde horien ordezkari handiena duen elkarteak izendaturik.*
- e) Bi aditu, bata informatikakoa eta bestea oinarritzko eskubideetako, Euskal Herriko Unibertsitateak izendaturik Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioei galdetu ondoren.*

Artikulu horrekin bat etorruta, honako izendapen hauek egin dira:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaria**, Gobernu Kontseiluak izendatuta: José María Endemaño Arostegui jauna, Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendaria.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia, 2004ko uztailaren 13koa.

"...Bigarrena.- Jose Maria Endemaño Arostegui, Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendaria izendatzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailearen ordezkari gisa."

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Toki erakundearen ordezkaria**, erakunde gehien biltzen duen elkarteak izendatuta: Rafael Ibargüen González jauna, Basauriko alkatea.

EUDEL, Euskadiko Udalen Elkartearen jakinarazpena, 2004ko uztailaren 20koa, zeinaren bidez izendatzen baita Rafael Ibargüen González jauna, Basauriko alkatea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailearen ordezkari gisa.

- **Eusko Legebiltzarrak izendatutako ordezkaria**: Juan Luis Mázmela Etxebarria, Eusko Legebiltzarreko Informazio-sistemen zuzendaria.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2004ko abuztuaren 31n egindako bileran hartutako erabakia, Eusko Legebiltzarreko Informazio-sistemen zuzendaria izendatzen duena Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailearen ordezkari gisa.

- **Bi aditu, bata informatikaren alorrekoa eta, bestea, oinarrizko eskubideen alorrekoa, Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuta**: Eduardo Jacob Taquet jauna, Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra, informatikaren

esparrukoa, eta Iñaki Esparza Leibar, Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra, oinarritzko zuzenbideen esparrukoa.

Resolución del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen ebazpena, 2004ko azaroaren 29koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaiarearen ordezkariak izendatzen dituen.

Izendapenak egin ondoren, Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaiarean lehenengo bilera planifikatu zen 2005eko lehendabiziko hiruhilean egiteko.

4.3. Egin gabe dagoen arau garapena

Bai 2/2004 Legeak berak eta bai Legea indarrean sartu izanaren ondorioz beharrak sortu direlako ere, honako hauek garatu beharko ira epe laburrean:

Datuak babesteko euskal Bulegoa

Aipatutako 2/2004 Legearen 10.1 artikulua ezartzen duenez, DBEBak jardungo du Lege horretan eta, Eusko Jaurlaritzak, Lehendakariaren proposamenez, onartutako Bulegoaren Estatutuari buruzko dekretuan xedatutakoaren arabera. Beraz, Bulegoaren oinarritzko antolaketa-diseinua osatu beharko da Dekretu horren bidez.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, garatzen duen Araua

Herritarren intimitate pertsonala eta familiarra eraginkorrako babestearren, beharrezkoa da araudia osatzea; bereziki, informazio-autodeterminaziorako eskubidea izenez ezagutzen dena. Hala ere, kasu honi dagokionez, babesa bai han sortu edo kudeatu direlako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei lotetsitako fitxategiei baino ez dagokie. 2/2004 Legeak berak ere, azken xedapenean, baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari gara eta aplikatu dezan. Baina gaikuntza orokor horrez gain, 2/2004 Legeak zenbait aldiz jotzen du araudira. Horietakoen artean azpimarratu behar dugu Legean ezarritakoaren aurkako jarduerak direla-eta, interesdunen erreklamazioen ondoriozko prozedura arautzeari dagokiona.

Kontseilu Aholku-emailaren erregelamendua

2/2004 Legearen 16.2 artikulua ezarritakoaren arabera, Kontseilu Aholku-emailak berak onartuko ditu bere antolaketako eta funtzionamenduko arauak. Lehendakari-kargua eta idazkari-kargua egongo dira arau horietan aurreikusita, eta nola aukeratu edo izendatu behar diren ere bai.

Datuak babesteko erregistroa

Legearen 18.4 artikulua ezartzen du Fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan nola inskribatu behar diren, inskripzioen edukia, nola aldatu, indarrik gabe nola utzi, ebazpenen aurkako erreklamazioak eta errekursoak nola aurkeztu eta halako gainerako gorabeherak erregelamendu bidez arautuko direla.

Bulegoaren zuzendariaren ebazpena, inskribatzeko eta jakinarazpenen eredu eta bitartekoei buruzkoa

Jarduera erabat material gisa, fitxategien inskripzio prozesuak erraztearren, eta arrazoi erabat instrumentalak direla medio, beharrezkoa da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistroan fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzekeo inprimaki-ereduak eta bitartekoak ezartzea.

5. Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroa.

5.1. Legearen 18 artikuluen edukia

2/2004 Legaren 18 artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren barruko organo gisa, Bulegoaren Estatutueta zehazturiko moduan. 2004. urtean ez zen, artean, garapen hori gauzatu.

Helburua

Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu beharko dira Lege honetako 2.1 artikuluan zehazturiko fitxategiak, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan zehazturiko baimenak, inskribaturiko fitxategiei dagozkien ereduak, eta inskribaturiko fitxategiei buruzko datu hauek: informazio- eskubidea, datuetara iristeko eskubidea, datuak zuzentzeko eskubidea, datuak indarrik gabe uzteko eskubidea eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko behar direnak.

Agentziak bere funtzioetako bat betetzeko tresna nagusia da Datuak Babesteko Erregistroa, hain zuzen, datu pertsonalak dituzten fitxategien publizitatea zaintzea. Aipatutako publizitatea beteko da erregistroan kontsulta egin ondoren, eta herritar guztiei emango zaie aukera jakiteko badirela fitxategiak eta datu pertsonalen tratamendua, zein diren horien helburuak eta nor den tratamenduaren arduraduna.

Erregistroaren prozedura

Datuak Babesteko Erregistroa eskatutako inskripzioak onartzeko (edo, hala badagokio, ukatzeko) prozeduraz hornitu beharko da.

Egin gabe dagoen erregelamendu garapenari dagokionez, inskripziorako edukiak eta aldatzeko edo baliogabetzeko mekanismoak ere jasoko ditu, bai eta erreklamazioen tramitazioa eta dagozkien erabakien aurkako errekurtsioak jartzeko modua ere.

5.2. Lehendabiziko jarduerak

Datuak babesteko Erregistroa dela-eta garatutako jarduerari dagokienez, sortzearekin, egituratzearekin eta antolatzearekin zerikusia dutenak baino ez dira jorratu. Honakoak izan dira, zehatz-mehatz:

Datuak babesteko Erregistroaren alde zurreko Azterketa

Alde zurreko eta Bideragarritasun azterketa egiterakoan, garatu beharreko Informazio Sistemaren ildo orokorrak aztertu ziren, eta kontuan hartu ziren irizpen ekonomiko, tekniko, legeko eta operatiboak.

Horren guztiaren ondorioz, Bulegoa bi norabidetara zuzendu da: batetik, Datuak babesteko Espainiako Bulegoak eta dagoeneko eratuta dauden erkidegoetako gainerako bulegoek garatu dituzten sistemak bateragarritasun funtzional ahalik eta handiena eta, bestetik, ahalgin ekonomia arlo teknologikoan, egin ahal izan dena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio komunak erabili ahal izan direlako.

Datuak Babesteko Erregistroaren Kudeaketa Sistema.

Hasiera batean, Datuak Babesteko Erregistroaren funtzionamendurako, bi osagarri nagusi hartu dira ardatz:

- Datuak Babesteko erregistroan fitxategien auto-aitorpena egiteko laguntza-programa, fitxategi horien arduradunek erabil ditzaten.
- Datuak Babesteko erregistroaren beraren kudeaketa programa. Horretan biltzen dira inskripzioak, jakinarazpenak, kontsultak...

Hasi da garatzen bi osagaien bertsio elebiduna.

Ekipamendu informatikoa

Bulegoak hitzarmena sinatu du EJIE, S.A. enpresarekin, informatika eta komunikazioko zerbitzuak eta zuzkidurak emateko, betiere EJIE, S.A. Eusko Jaurlaritzarekin sinatu dituen Kontratu-Programa estandarren antzekoa. Honako zerbitzu hauek daude aurreikusita:

- ***Sare Korporatiboko zerbitzuak***

Zerbitzu ofimatiko orokorrak ematea, hala nola, fitxategiak eta inprimazioa, operazioa eta babesa, posta eta Internetarako sarbidea, zenbait korporazio-aplikazioaren erabilera eta Erabiltzaileentzako Arreta-zerbitzua.

- ***Material informatikoa lagatzea***

Mahai gaineko ekipoak, inprimagailuak eta Bulegoaren ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren gainerako

tresnak, mantentzea eta softwareko baimenak barne, lagatzea "renting" eraren bidez.

- ***Bertako aplikatiboak eta Web zerbitzuak ostatatzea***

Bulegoaren beraren eta Web atariaren ekipo informatikoen, aplikatiboen, datuen, komunikazio elementuen, software baimenen eta gainerakoen ostatatzea, antolakuntza, ustiaketa eta mantentzea biltzen ditu, hitzartutako zerbitzu mailarekin bat etorrita, betiere (24 x 7).

Hitzarmenak berariaz jasotzen ditu EJE, SAK, zerbitzu emaille gisa oro har eta, bereziki, Bulegoaren bidez datu pertsonalak tratatzen dituen aldetik, bai eta gainerako administrazioekin partekatu litezkeen korporazio sareko segmentuak sekurizatzeko, isilpekotasunaren alorreko baldintza partikularrak.

5.3. Informazioaren abiapuntuko egoera. Datuak eta koadroak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistroa une horretara arte Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erregistratuta zeuden datuak abiapuntu hartuta eratu zen. Horretarako, zegokion informazioa eskatu zitzaion Datuak Babesteko Erregistro Orokorriari.

Informazio hori abiapuntu zela, ondoren Datuak Babesteko Erregistroko datuen azterketa zehatza aurkeztu zen erakunde aitortzaileen kopuruari eta aitortutako fitxategi kopuruari zegokienez. Datu horiek sailkatzeko, aldagai nagusiekin (lurraldetasuna, administrazioen tipologia eta datu-fitxategi horiek zein segurtasun-mailatan sailkatzen diren) gurutzatu ziren. Horrek guztiak aukera emango du, arestian aipatu denez,

fitxategien inskripzioak Erregistroan izan duen bilakaera neurtzeko hurrengo oroitza-txostenetan.

5.3.1. Erakunde aitortzaileak

“Erakunde aitortzailea” zer den jakiteko, kontuan hartu behar da, irizpidea zein den, gauza bat edo beste izango dela. Ondorengo taulatan, eta betiere oroitza txosten ondorioetarako baino ez, norberaren IFK edukitzea hartu da irizpidetzat erakundeak bereizteko.

Irizpide horren arabera, beraz, 210 erakunde dira; logikoa denez, udalak dira gehienak, eta honakoa da banaketa:

1-A Taula.- Erakunde Aitortzaileen kopurua, administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera				
Administrazio mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	6			6
Aldundiak	5	5	3	13
Udalak	36	73	79	188
Udalez gaindiko erak.		3	2	5
Autonomia-erakundeak	1			1
Bestelakoak	1	2		3
Guztira	49	83	84	216

Aurreko taulan jasota daude erakunde publikoak eta horien mendeko zuzenbide publiko edo pribatuko erakundeak ere bai.

Udal-esparruko 188 erakunde aitortzaileei dagokienez, honakoa da banaketa, udalen tamainaren arabera:

1-B Taula– Udal-esparruko erakunde aitortzaileak, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera				
Populazio-maila	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
< 500	11	7	10	28
500 – 999	10	7	6	23
1.000 – 4.999	11	21	10	42
5.000 – 9.999	1	12	13	26
10.000 – 19.999	1	8	20	29
20.000 – 49.999		9	9	18
50.000 – 99.999		6	4	10
> 100.000	2	3	7	12
Guztira	36	73	79	188


Aurreko taulan jasota daude erakunde publikoak eta horien mendeko zuzenbide publiko edo pribatuko erakundeak ere bai.


Fitxategi bakar bat aitortu ez duten erakunde publikoei dagokienez, berriz, honakoa da ikuspegia: 91 udalek ez dituzte, ezta forma aldetik ere, datuak babesteko gutxieneko baldintzak bete, adibidez, ez dituzte datu-fitxategiak inskribatu Datuak Babesteko Erregistroan.

1-C Taula – Aitorpenik egin ez duten Udalak, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera				
Populazio-maila	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
< 500	9	17	14	40
500 - 999	2	10	3	15
1.000 - 4.999	5	19	12	36
Guztira	16	46	29	91

Udalerri horiek, 91, Euskadiko udalerrien %36 dira, eta gehienak Bizkaikoak dira (46). Erlatiboki ere Bizkaikoak dira gehienak (%41).

Ikusten denez, udalerri aitortzaile ez diren guztiak 5.000 biztanletik beherakoak dira. Nonbait, ez dute nahikoa baliabiderik zeregin horretarako.






Proportzio hori handitu egiten da 500 biztanletik beherako udalerrietan, izan ere horietako ia %60k ez dute batere gestiorik egin datuen babesaren esparruan, nahiz eta, horregatik ere, populazioaren zati txiki bati baino ez dion eragiten.

Azterketa honen ondorioak argituko du zein izan behar den Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ardatzetako bat: hain zuzen ere, neurri txikiko erakunde horiek ere oinarrizko eskubideak, Datu Pertsonalen Babesa esaterako, zaindu behar dituztela.

5.3.2. Inskribatutako fitxategiak

2004. urtea arte inskribatutako fitxategiak, guztira, **2.578 fitxategi** dira. Horiek deklaratu izan dituzte 1992ko urriaren 29an 5/1992 Lege Organikoa, Datu pertsonalen tratamendu automatizatuari buruzkoa, onartu zenetik, baina irregulartasunez, ondorengo grafikoan ikusten denez:

2-A. Grafikoa- Aitortutako Fitxategi kopuruaren urtekako banaketa.




Ikusten denez, LORTAD legea onartu zenean aitortpen andana izan zen, baina ondoren gainbehera etorri zen kopurua, harik eta, LOPD berria (1999) onartu ondoren, 2000. urtean berpiztu arte. Orduan hazi egin zen, progresiboki, kopurua. Horrek argi erakusten du azken urteotan datuen babesaren alorrean berpiztu egin dela kontzientzia.

Ondorengoa da aitortutako fitxategi kopurua, kontuan hartutako udal moten arabera:

2-B. Taula- Aitortutako fitxategiak, Administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazio mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	450			450
Aldundiak	42	73	135	250
Udalak	211	587	1.041	1.839
Udalez gaindiko erak.		14	16	30
Autonomia-erakundeak	3			3
Bestelakoak	1	5		6
Guztira	707	679	1.192	2.578
Lurraldeko kontribuzioa	%27,4	%26,3	%46,2	%100,0

Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoak du fitxategi gehien aitortuta, guztizkoaren %46,2, bereziki udalei dagozkienak. Eta hori erakusten dute datuek, nahiz eta Eusko Jaurlaritza Arabako Lurraldean kontabilizatuta dagoen, eta horrek gehitu egiten du lurralde horretan kontabilizatutako fitxategien kopurua.



Beste alde batetik, erakunde bakoitzak aitortzen duen batez besteko kopurua nabarmen aldatzen da. Batzuek fitxategi bakarra aitortzen dute, eta Eusko Jaurlaritzako erakundeek, 75, ondoko koadroan ikus daitekeenez:

2-C Taula.- Aitortutako fitxategiak, batez beste, Administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera.				
Administrazio mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	75,0	-	-	75,0
Aldundiak	8,4	14,6	45,0	19,2
Udalak	5,9	8,0	13,2	9,8
Udalez gaindiko erak.	-	4,7	8,0	6,0
Autonomia-erakundeak	3,0	-	-	3,0
Bestelakoak	1,0	2,5	-	2,0
Osokoa	14,4	8,2	14,2	11,9

Administrazio guztiei dagokienez, aitortutako batez besteko fitxategi kopurua ia 12koa da, aurreko grafikoan islatzen den administrazio moten arabera banaketa kontuan hartuta. Bai Araba eta bai Gipuzkoa batez bestekoaren gainetik daude, lehendabiziko Eusko Jaurlaritzak dagoelako bertan eta bigarrenaren Foru Aldundiaren aportazioari esker.

5.3.3. Inskribatutako fitxategien banaketa, atalka.

Administrazio mota bakoitzaren tipologiara etorrira, sailkako banaketak erakusten du Eusko Jaurlaritzan, esaterako, Herrizaingo, Osasun eta Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzak Sailak nabarmentzen direla guztien gainetik.

Foru Aldundietan, berriz, Gipuzkoakoa da, hau ere nabarmen, fitxategi gehien aitortu dituenak, ondorengo taulan ikusten denez:

3-A Taula - Eusko Jaurlaritzak aitortutako fitxategi kopurua	
Erakundea	Fitxategiak
Herrizaingo Saila	85
Osasun Saila	78
Justizi, Enplegu eta Gizarte Segurantzak Saila	66
Ogasuna eta Herri Administrazio Saila	49
Nekazaritza eta Arrantza Saila	38
Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila	25
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumen Saila	25
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	24
Kultura Saila	18
Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila	16
Garraioak eta Herri Lanak Saila	13
Eusko Jaurlaritzak - Lehendakariak	7
Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetza Saila	6
Eusko Jaurlaritzak guztira	450

3-B Taula- Foru Aldundiek aitortutako fitxategiak	
Erakundea	Fitxategiak
Gipuzkoako Foru Aldundia	128
Bizkaiko Foru Aldundia	57
Arabako Foru Aldundia	29
Bizkaiko Batzar Nagusiak	5
Bizkaiko Batzar Nagusiak	5
Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiak	5
Gizarte Laguntzako Bizkaiko Foru Erakundea	4
Gizarte Ongizateko Arabako Foru Erakundea	4
Bizkaiko Tutoretza Erakundea	4
Lurralde Ikerketarako Bizkaiko Erakundea	3
Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundea	3
Uliazpi Fundazioa	2
Arabako Foru Mutua	1
Foru Aldundiak guztira	250

Udalei dagokienez, populazio kopuruaren arabera sailkatu ditugu, eta erakunde bakoitzak aurkeztu duen fitxategi kopuruaren batez bestekoa eskaini dugu, populazio mailaren eta lurralde historikoaren arabera:

3-C Taula – Toki erakundeek aitortutako fitxategiak, populazio mailaren arabera				
Populazio-maila	Aitortutako fitxategiak			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
< 500	34	32	69	135
500 - 999	40	19	46	105
1.000 - 4.999	47	102	103	252
5.000 - 9.999	9	74	197	280
10.000 - 19.999	14	56	331	401
20.000 - 49.999		106	137	243
50.000 - 99.999		37	50	87
> 100.000	67	161	108	336
Guztira	211	587	1.041	1.839

Populazio-maila	Aitortutako fitxategiak, batez beste			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi
< 500	3,1	4,6	6,9	4,8
500 - 999	4,0	2,7	7,7	4,6
1.000 - 4.999	4,3	4,9	10,3	6,0
5.000 - 9.999	9,0	6,2	15,2	10,8
10.000 - 19.999	14,0	7,0	16,6	13,8
20.000 - 49.999	-	11,8	15,2	13,5
50.000 - 99.999	-	6,2	12,5	8,7
> 100.000	33,5	53,7	15,4	28,0
Guztira	5,9	8,0	13,2	9,8

Udalen artean, Gipuzkoakoek aitortu dute fitxategi gehien, bai kopuru absolututan ea bai erakunde bakoitzak aitortutako fitxategi kopuruaren batez bestekoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan aitortutako fitxategien batez bestekoa erakunde bakoitzeko 9,8 da, eta korrelazio handia dago batez besteko horren eta udalerrien tamainaren artean. Horregatik, hain zuzen, nabarmentzen dira Euskadiko hiri hiriburuak, horietan batez beste baino hiru aldiz gehiago deklaratu baitituzte (28 erakunde bakoitzeko). Harrigarria da 50.000 eta 99.999 biztanle arteko udaletako "zuloa". Horren azalpena izan liteke 4 udalerri baino ez izatea populazio-maila horretakoak.

Beste alde batetik, azpimarratu behar da Vitoria-Gasteizko Udalak Europako Udal Administrazio Praktika Egokien saria jaso duela, honako proiektuarengatik: "Datu pertsonalen tratamendua hobetzeko proiektu integrala". 2004ko abenduaren 15ean eman zion Datuak babesteko Madrileko Erkidegoak.

Azkenik, erakunde instituzionalak, udalez gaindiko erakundeek eta gainerako erakundeek 39 fitxategi aitortu zituzten, eta batez bestekoa, berriz, erakundeko 12koa da.:

3-D Taula – Beste Erakunde batzuek aitortutako fitxategi kopurua	
Erakundea	Fitxategiak
Instituto Vasco de la Mujer - Emakunde	3
Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa	7
Lea Artibaiko udalen Mankomunitatea	4
Deba Garaiko udalen Mankomunitatea	7
Busturialdeko gizarte zerbitzuen Mankomunitatea	3
Urola-Kosta Mankomunitatea	9
Merkataritza eta Industriako Arabako Ganbara	1
Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargoa	1
Euskal Herriko Unibertsitatea	4
Guztira	39

Koadro honetan bitxia da ikustea zein fitxategi gutxi aitortu dituzten Zuzenbide Publikoko Korporazioek, hau da, elkargoek, ganbarek... Hori gertatzen da erakunde horien datu pertsonaleko fitxategiak bi esparrutan jarduteko direlako (publikoa eta pribatua) eta, beraz, Zuzenbide Publikoko eskumenetatik kanpo sortutako edo kudeatutako fitxategiak Fitxategi Pribatuen Datuan Babesteko Espainiako Bulegoan daude erregistratuta.

5.3.4. Aitortutako Fitxategien segurtasun maila


Aitortutako fitxategien segurtasun maila ondoko koadroan dago adierazita:

4-A Taula- Aitortutako fitxategien kopurua, Administrazio motaren eta Segurtasun Mailaren arabera

Administrazio mota	Aitortu gabe	Oinarrizkoa	Ertaina	Handia	Guztira
Eusko Jaurlaritza	127	168	22	133	450
Aldundiak	53	65	105	27	250
Udalak	1.121	408	184	126	1.839
Udalez gaindiko erak.	14	11	2	3	30
Autonomia-erakundeak		3			3
Bestelakoak	4	1		1	6
Total	1.319	656	313	290	2.578

Koadro honetan harrigarria da ikustea aitortutako ia fitxategi erdiek ez edukitzea aitortuta segurtasun maila aplikagarria. Hori hobeto interpretatzen da ondorengo koadroa ikusita:

4. grafikoa.- Aitortutako fitxategi kopuruaren banaketa, denboraren arabera



Aitortutako fitxategien segurtasun maila 16/1999 Legea (LOPD) indarrean sartu ondoren egindako (edo aldatutako) aitortpenetan baino ez da ageri. Lege horrek hala egiteko agintzen du, 20.2 artikuluan, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen neurriei buruzko Erregelamenduari buruz onartu zen 994/1999 Errege Dekretuarekin bat etorrita.

Ez dago inon jasota, beraz, 2000. urtearen aurretik aitortutako fitxategien segurtasun mailari buruzko daturik, nahiz eta egokitu behar ziren lehenengo LOPDaren lehendabiziko xedapen gehigarrian ezarritakora.

5.4. Informazio trukaketa Datuak Babesteko Erregistro Orokorrekin

Aurretik adierazi denez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpidea da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarekiko eta dagoeneko eratuta dauden Autonomia-bulegoekiko bateragarritasun funtzionalari eustea. Hala bada, Lan Taldea eratu da Erregistroen arteko Trukaketa Sistema Ezartzeko (SIDIR), Datuak Babesteko Erregistroen arteko koherentzia bermatzearren.

Lan Talde horren helburua da datu pertsonalen tratamenduen inskripzioari buruzko komunikazioa erraztea kontrol-aginpideek sortutako fitxategi-erregistroen artean, hau da, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak eta erkidegoetan orain arte eratutako bulegok sortutakoen artean.

Horrek garrantzi berezia du, kontuan hartzen bada publikoa izatea beharrezkoa dela, bai Espainiako Bulegoan eta bai

Datuak Babesteko euskal Bulegoan ere. Datu Pertsonalak dituzten fitxategiak bi tokitan erregistra ez daitezen,

Horrek garrantzi berezia du, kontuan hartzen bada beharrezkoa dela titulartasun publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiak, bai Datuak Babesteko Euskal Bulegoarenak eta Bai Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarenak, inskribatzea. SIDIRren eginkizunak berebiziko garrantzia izango du Datu Pertsonalak dituzten fitxategiak bi tokitan erregistratzeak eragin negatiborik eduki ez dezan fitxategien arduradunengan, aitorpenak egiterakoan, eta Agentziei berei ere kalterik eragin ez diezaien erregistroen artean izan litekeen koherentzia ezagatik. Oinarri-oinarrian, izango da sistemek trukatu duten transakzio multzoa izango da definitu beharreko sistema, betiere honako operazioei begira:

- 1) **Erregistroak kontsultatzeko eragiketak:** bulego batek, SIDIRren bidez, beste bulego bateko Fitxategi Erregistroan galdetzekoa.
- 2) **Jakinarazpen eragiketak,** erregistroen artean informazioa jakinarazteko, erregistro horiek eguneratzearren.
- 3) Zerbitzu eragiketak, SIDIRren funtzionamendua aztertzekeo balioko dutenak.

6. Fitxategi publikoetako arduradunek planteatutako galderei buruzko informazioa.

2004. urtean, zortzi informazio-eskaera do kontsulta sartu ziren Datuak Babesteko Euskal Agentzian.

Horietatik bost Euskal Administrazio Orokorraren fitxategiei buruzkoak ziren, bat Lurralde Historiko bati buruzkoa, bat Udal bati buruzkoa eta bestea zuzenbide publikoko korporazio bati buruzkoa.

Eskaeren xedeei dagokienez, bi DBEBaren Erregistroaren funtzioei buruzkoak ziren; beste bat datuak babesteko erregistroa sortzeko arauaren publikazioari buruzkoa; beste bi, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzeko xedapen orokorrei buruzkoak; eta, azkeneko biak, datu pertsonalen babesean eragina eduki zezaketen erkidego bi lege garatzeko xedapen orokorrei buruzkoak.

Datu pertsonalen tratamenduan praktika egokiak lortzearren, 2004. urteko hilabete operatiboetan hainbat bilera informal egin ziren legearen aplikazio esparruko zenbait administrazio publikorekin. Aipatzekoak dira Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzu zuzendariekin egindakoak, bai eta erakunde bereko aholkularitza juridikoko langileekin egindakoak ere. Legean ezarritako alderdi formalak betetzea zen helburua, bai eta datuak babesteko esparruan eduki zitzaketen arazo eta galderei erantzutea ere.

7. Kontrol funtzioak: Ikuskaritza eta eskubideak babestea.

Atal honi dagokionez, Datuak Babesteko Euskal Agentzian hamabi erreklamazio eta datu pertsonalen sarbiderako, zuzenketarako, aurkaritzarako eta baliogabetzeko babes eskaera jaso ziren.

Hamabi erreklamazio eta babes eskaeretatik, zortzi Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko datu pertsonaletako fitxategiei dagozkie; beste bi, Toki Administrazioetako fitxategiei; bat, zuzenbide publikoko korporazioei; eta bestea, aurrez aipatu denez, titulartasun pribatuko fitxategiei, eta, beraz, arestian esan denez ere, ez zen onartu.

Fitxategien esparru materialei dagokienez, bost Poliziarenak dira, bi osasun arlokoak, bat hezkuntzako, bat gizarte zerbitzuetako, bat Baliabide Orokorretako eta, azkena, zuzenbide publikoko korporazioei dagokie.

Azpimarratu behar da erreklamazioetan eta babes eskaeretan salatutako jokabideek zerikusia dutela erreklamatzailerei irekitako zigor prozedurekin; hiru datu pertsonalen sarbiderako, zuzenketarako, aurkaritzarako eta baliogabetzeko eskubideei buruzkoak dira; bat, lanpostuen zuzkidura sistemei; eta, azkena, datu pertsonalak ustez baimenik gabe lagatzeari buruzkoa da.

8. Ekonomia- eta Administrazio-kudeaketa eta giza baliabideen Kudeaketa.

8.1. Ekonomia- eta Administrazio-kudeaketa

8.1.1. 2004ko aurrekontua gauzatzea

2/2004 Legearen Bigarren Azken Xedapenak baimena ematen zion Ogasuna eta Herri Administrazio Sailari "Beharrezko aurrekontu-atala sortzeko eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubidea antolatzen duten legeekin bat, aurrekontua lege honetan xedaturikoa aplikatzeko behar beste aldatzeko".

Ogasuna eta Herri Administrazio sailburuaren martxoaren 26ko Aginduen bidez, zenbait aurrekontu aldaketa onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioaren 2004ko aurrekontuan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari zegozkionak. Hona hemen aldaketa horiek xehatuta:

GASTUAK-GASTOS	DANERA 2004 TOTAL
I KAPITULUA.- Pertsonalaren Ordainsariak CAPÍTULO I.- Gasto de Personal	65.234,48
II KAPITULUA.- Funtzionamendu Gastuak CAPÍTULO II.- Gastos de Funcionamiento	34.756,52
VI KAPITULUA.- Inbertsio Errealak CAPÍTULO VI.- Inversiones Reales	20.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO GASTOS	120.000,00

Ekonomia- eta Administrazio-kudeaketa eta giza baliabideen Kudeaketa.

SARRERAK- INGRESOS	DANERA 2004 TOTAL
Administrazio Orokorraren transferentziak Transferencias administración general EUSKO JAURLARITZA	120.000,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO DE INGRESOS	120.000,00

Gastua honelaxe gauzatu da:

KONCEPTUA / CONCEPTO		
SARRERA ARRUNTAK / INGRESOS CORRIENTES		120.029
Transferentzia arruntak / <i>Transferencias corrientes</i>	120.000	
Beste sarrera batzuk / <i>Otros ingresos</i>	29	
GASTU ARRUNTAK / GASTOS CORRIENTES		86.666
Pertsonal gastuak / <i>Gastos de personal</i>	54.813	
Jarduera gastuak / <i>Gastos de funcionamiento</i>	31.853	
AURRERAKIN GORDINA / AHORRO BRUTO		33.363
KAPITAL SARRERAK / INGRESOS DE CAPITAL		
Kapital transferentziak / <i>Transferencias de capital</i>	0	
KAPITAL GASTUAK / GASTOS DE CAPITAL		
Inbertsio errealak / <i>Inversiones reales</i>	28.127	
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA / SUPERÁVIT DEL PRESUPUESTO CORRIENTE		5.236

8.1.2. DBEBak egindako lehenengo aurrekontua (2005)

2/2004 Legearen 13 artikulua honakoa ezartzen du: "Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo berezita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera".

Lehenengo aurrekontua egin behar zenez, Bulegoak planifikazio lan handia egin zuen, bukatu zena 2005 ekitaldirako aurrekontua onartzean. Oroitza txosten honetako II. Eranskinean dago jasota DBEBaren aurrekontuaren proiektu osoa, oroitza txosten eta guzti. Honakoa da proiektuaren laburpena:

GASTUAREN AZALPEN ETA KONTZEPTUA CONCEPTO Y EXPLICACION DEL GASTO	GUZTIRA/TOTAL
1. KAPITULUA: LANGILE GASTUAK CAPITULO 1: GASTOS DE PERSONAL	471.053
2. KAPITULUA: JARDUERA GASTUAK CAPITULO 2: GASTOS DE FUNCIONAMIENTO	447.511
6. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK CAPITULO 6: INVERSIONES REALES	236.442
GASTUAK GUZTIRA TOTAL GASTOS	1.155.006

8.2. Giza baliabideak

Legea onartu zen aurrekontu ekitaldia hasitakoan; hori dela-eta, DBEBaren egoera, giza baliabideei dagokienez, urria izan da.

Maiatzaren 83/2004 Dekretuaren bidez Iñaki Vicuña de Nicolás izendatu zuten Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari, ondorioak maiatzaren 14tik aurrera zituela Dekretuak.

Irailaren 16an administrari lan edo zerbitzuetarako lan-kontratua sinatu zen.

2004ko azken hilabeteetan, honako jarduerak aurreikusi dira:

Ekonomia- eta Administrazio-kudeaketa eta giza baliabideen Kudeaketa.

- Epe ertainerako egokitutako aurrekontu plantila onartzea (beste bulego batzuetako egoerarekiko alderaketa abiapuntu hartuta).
- 2005 ekitaldiaren lehenengo seihilekoan zerbitzuetako arduradunek aldi baterako lanpostua hartzea.
- DBEBaren Lanpostuaren Zerrenda egitea eta onartzea 2005eko bigarren seihilekoan.
- Premia handien duten lanpostuak lehenbailehen eta aldi baterako hornitzea zerbitzu eginkizunen bidez.
- Balioetsitako lanpostuak hornituz joatea, Lanpostuen Zerrenda onartu ondoren.

Honakoa da eratutako aurrekontu plantila:

GOI-KARGUAK / ALTOS CARGOS	DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
ZUZENDARIA / DIRECTOR	1
FUNTZIONARIOAK / FUNCIONARIOS	DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
28. maila / nivel 28	2
27. maila / nivel 27	1
26. maila / nivel 26	1
25. maila / nivel 25	1
24. maila / nivel 24	2
23. maila / nivel 23	3
21. maila / nivel 21	1
20. maila / nivel 20	2
18. maila / nivel 18	1
16. maila / nivel 16	2
GUZTIRA / TOTAL	16

8.3. Egoitza

2004. urtean Bulegoa Lakuan egon da aldi baterako, Eusko Jaurlaritzak atondutako lokal batzuetan.

Zuzenbide publikoko entea denez, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa dituen, eta bere eginkizunak herri administrazioekiko inongo loturarik gabe bete behar dituen, eta kontuan hartuta bere jarduerak zerikusia duela Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrarekin, lurralde historikoetako foru organoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioekin, bai eta administrazio publikoekiko lotura duten edo horien mendekoak diren era guztietako erakunde publikoekin ere, komenigarria da erakundeak bere egoitza izatea, fisikoki erakunde horiekiko loturarik ez duen egoitza, alegia.

Lehenengo unean erabaki zen honako baldintza hauek eduki behar zituen lokalak behar zela:

- **Tokia:** Vitoria-Gasteiz.
- **Ezaugarriak:**
 - Herritarrak erraz iristeko modukoa.
 - Bostehun metro koadro, gutxi gorabehera.
 - Bulego izateko atonduta, edo egokitzeak neurriko prezioa izango duena.

Hainbat aukera aztertu ziren ondoren, eta Eusko Jaurlaritzak Vitoria-Gasteizen dituen lokalak baztertu ziren, ez baitauka halako ezaugarriak dituen lokal hutsik.

Ondoren, eta Ondare Zuzendaritzaren lankidetzarekin, alokairuko higiezinaren merkatuaren eskaintza aztertu zen.

9. Bulegoaren Web orriaren prestaketa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Web orria sortzea eta ostatatzeari dagokionez, informatika eta komunikazio zerbitzuak eta zuzkidurak emateko EJE, SA enpresa publikoarekin sinatutako hitzarmenean jaso da. Zerbitzu horretan sartzen da zerbitzarien eta komunikazio gaien ostatatzea, antolakuntza, ustiaketa eta mantentzea.

Era berean, Administrazioa Modernizatzeko Bulegoarekin hitzartu da Bulegoa gehitzea www.euskadi.net erakunde atarira; horrek ekarriko du euskarrirako sortutako tresnak erabiltzea (edukien kudeatzailea eta atarien administrazioa).

Bulegoak avpd.es eta avpd.org domeinuak erregistratu ditu, "Agencia Vasca de Potección de Datos" izenaren akronimo gisa, eta dbeb.org eta dbeb.es "Datuak Babesteko Euskal Bulegoa"ren akronimo gisa. Halaber, datuak.org domeinu generikoa gorde da, etorkizunean erabili behar bada ere.

Web orria bata bestearen ondoren datozen lau etapatan zabalduko da:

1. Informazio orokorra. Bertan, formularioak eta Datuak Babesteko Fitxategien auto-aitorpenerako laguntza-programa deskargatzeko aukera izango da fitxategien arduradunek erabil ditzaten.
2. Datuak Babesteko Erregistroaren kontsultak, datu pertsonalak dituzten fitxategien publizitatea zaintzeko.
3. Bulegoak hartzen dituen erabakien publikazioa, bai eta interes orokorrekoak diren txostenena, eta kontsultena ere.

4. Datuen Babesarekin zerikusia duten erabiltzaileentzako extranet-a, datuen babeseko eta segurtasuneko arduradunei Bulegoarekiko harremana zuzena eskaintzearen, horrek aukera emango baitie ahalik eta informazio gehien edukitzeko eta beren intereseko espedienteen jarraipena egiteko ere.

10. Erakundeekiko Komunikazioa eta Harremanak.

10.1. Irudi Korporatiboaren plegua prestatzea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zenetik, ez da oso ezaguna izan eta ez du irudi korporatiborik erabili. Euskal Autonomia Erkidegoaren ezkutua erabili du orain arte, Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa izenarekin batera.

Badirudi iritsi dela unea Bulegoaren ezaugarrietan oinarritutako irudia aukeratzeko. Irudi horretan Bulegoaren izaera eta bere kontrola burutzen duen administrazioekiko independentzia azaldu beharko dira.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da proposamenak eskatzea, irudi korporatiboaren diseinua eta, ondoren, Komunikazio Plana sustatzeko. Horrek guztiak honakoa ahalbidetuko du:

- Egoki identifikatua izatea
- Bulegoak erabili behar duen dokumentazio guztian irudia ezartzea, bai oinarrizko paperetan, karpitetan eta formatu elektronikoetan ere.
- Harremana izan behar dugun administrazioei gure berri ematea.
- Herritarrei gure berri ematea.

Ildo horretatik, informazioa hartu da Eusko Jaurlaritzako eta beste administrazio batzuetako identitate korporatiboko zenbait eskuliburutatik, eta Bulegoaren irudi korporatiboa zehazteko oinarrizko beharrak ezarriko dituen agiria lantzen hasi gara.

10.2. Hitzarmenak

2004. urtean honako hitzarmenak sinatu dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, A.B. Sociedad Informática Del Gobierno Vasco, S.A. EJIekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena. Helburu du EJIek DBEBari informatika eta komunikazio zerbitzuak eta zuzkidurak emateko marko arautzailea ezartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa Modernizatzeko Bulegoarekin sinatutako hitzarmena, Datuak Babesteko Euskal Agentziak Euskadi.net atariaren plataforma erabil dezan bere Web orria ostatatzeko.

Era berean, tramiteak eta negoziazioak hasi dira honako erakundeekin lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izateko:

- CLI. Comisión de Libertades Infomáticas.
- EUDEL. Euskal Udalen Elkarte.
- IVAP. Herri Administrazioaren Euskal Erakundea.

10.3. Datuak Babesteko Bulego izateko, nazioarteko kreditazioa lortzeko tramitazioa

Bulegoa Kontrol Aginpidea izateko nazioarteko kreditazioa lortzeko aurreko tramiteak egin dira, bai eta eskaera ere Datuak Babesteko Komisarioen Nazioarteko Konferentziari (Conférence Internationale des Commissaires à la Protection des Données Comité de Vérification - International Conference of Data Protection Commissioners Credentials Committee) eta Datuak Babesteko Aginpideen Europako Konferentziari (Conference of European Data Protection Authorities) ere. Tramite horiei ekiteko ingelesera itzuli zen Legea.

10.4. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailean parte hartzea

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko uztailaren 13an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria, izendatzea Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaileko partaide.

"...Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 38 artikulua ezartzen du Datuak Babesteko Bulegoaren zuzendariak Kontseilu aholku-emailearen aholkurlartiza izango du. Kontseilu horretako partaide izango dira, besteak beste, bere lurralde esparruan datuak babesteko bulegoa sotu duten Autonomia Erkidegoetako ordezkari bana, eta betiere dagokion Autonomia erkidegoak ezarritako prozedurarekin bat etorrita proposatuko da.

Ildo horretatik, arauak ez duenez proposamena egiteko prozedurarik aurreikusi, egokia da Euskal Autonomia Erkidegoak Datuak Babesteko Estatuko Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailean izango duen ordezkaria izendatzea.

Adierazitakoaren arabera, Gobernuaren lehendakariordeak proposatuta, eta deliberatu ondoren, Gobernu Kontseiluak honakoa erabaki du:

...Hirugarrena.- Iñaki Vicuña de Nicolás, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria, izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren ordezkari Datuak Babesteko Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailean".

10.5. Datuak Babesteko beste Bulego batzuekiko lankidetzaren Erregistro Trukaketako Informazio Sistema (SIDIR) abiarazteko Lankidetzaren Protokoloa

José Luis Piñar Mañas jaunak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren zuzendariak; Antonio Troncoso Reigada jaunak, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko zuzendariak; Josep Xavier Hernández i Moreno jaunak, Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoaren zuzendariak eta Iñaki Vicuña de Nicolás jaunak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak sinatuta, Madril, 2004ko azaroaren 22an.

Erregistro Trukaketako Informazio Sistema (SIDIR) Lan Taldearen helburua da sortzea sistema bat erraztasuna emango duena komunikatzeko, gaur egun eratuta dauden kontrol aginpideek (Datuak Babesteko Eespainiako Bulegoa, Eta Datuak Babesteko Autonomia erkidegoetako Bulegoak) sortutako datu pertsonaleko tratamenduen inskripzioei buruzko informazioa.

10.6. Datu pertsonalen babesari buruzko konferentzietan, mintegietan eta bestelako jardueretan parte hartzea

- "Datuak Babesteko Euskal Bulegoa" mintegia. Lakua II EkitALDI Aretoa, 2004ko maiatzaren 28an.

- Hitzaldia: **“Actualización normativa sobre regulación de los ficheros públicos con datos de carácter personal”**. Bartzelonako Abokatuen elkargoaren egoitzan, 2004ko uzataiaren 19an, Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoak antolatuta (Comissió de Cultura. Secció de Dret Informàtic. Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoarekin batera antolatutako ekitaldia).
- Ikastaroa: **“Presente y futuro de la protección de datos de carácter personal”** (Datuak Babesteko Bulegoen zuzendariekin egindako mahai-ingurua). El Escorialen, 2004ko uztailaren 22an. Fundación Universidad Complutensek antolatutako udako ikastaroak. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak babestuta.
- Epaile eta Magistratuen egonaldia Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Dokumentazio Judizialeko Zentroan, Donostian, 2004ko urriaren 2an egindako hitzaldia: Gaia: **La protección de datos en el tratamiento y difusión de la Jurisprudencia**.
- **Datuak Babesteko Autonomietako Bulegoen I. Topaketa**. Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Bulegoak antolatuta; Madrileko Carlos III. Unibertsitatean, 2004ko azaroaren 2an. Txostena: **“Perspectivas de la Agencia Vasca de Protección de Datos”**.

- Hitzaldia: **“Protección de datos en los colegios profesionales. La Agencia Vasca de Protección de Datos”** 2004ko abenduaren 14an, , Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya – Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren egoitzan. Bilbon, I Grupo de estudios de Nuevas Tecnologías del Colegiok antolatuta.
- **Encuentro Europeo de Mejores Prácticas Públicas de Protección de Datos.** Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Bulegoak antolatuta. Madrilen, 2004ko abenduaren 15ean. (Lehen saria eman zioten Vitoria-Gasteizko Udalari).
- **Zuzenbide Publikoko Ikerketa Zentroarekin izandako bilera** (CRDP Centre de Recherche en Droit Public de l'Universite de Montreal). Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, Madrilen, 2004ko urriaren 21ean.

ERANSKINAK.

- I. Eranskina. 2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.***
- II. Eranskina. DBEBaren 2005eko aurrekontuen proiektua.***
- III. Eranskina. Erregistro Trukaketako Informazio Sistema (SIDIR) abiarazteko Lankidetzaren Protokoloa, 2004ko azaroaren 22koa.***